

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO LANGILEENTZAKO KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUA LANEKO SEGURTASUNEKO, INDUSTRIA HIGIENEKO, ERGONOMIAKO, PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUKO ETA OSASUNAREN ZAINTZAKO ESPEZIALITATEETAN KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKOA, ARAUTU BEHARKO DUENA

1. KONTRATUEN XEDEA ETA APLIKAZIO ESPARRUA

Lizitazio honen xedea da enpresa(k) hautatzea DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO (aurrerantzean, berdin, DONOSTIA KULTURA) langileentzako kanpoko prebentzio zerbitzua egiteko, laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako, psikosoziologia aplikatuko eta osasunaren zaintzako espezialitateetan, agiri honetan eta Ekonomia eta Administrazio Klausula Teknikoen Agirian aurreikusitakoaren arabera.

Ondoren, A letran adieraziko diren DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK kudeatutako zentroetan zerbitzuak egiten dituzten DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO langileei egingo zaie prebentzio zerbitzua.

Prebentzio zerbitzua DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO langile guztiei hedatuko zaie, hari atxikitako zentroetan unean-unean zerbitzuak egiten dituztenei, nahiz eta kontratua indarrean dagoen bitartean zentroak behin betiko edo aldi baterako itxi, zentro berriak atxiki, langileak gutxitu edo gehitzen diren, izan ere kasu horietan ezin izango baita inongo aldaketarik egin kontratuaren prezioan.

A) APLIKAZIO ESPARRUA:

Honako hauek dira gaur egun kudeatutako zentroak:

*Alderdi Ederreko Udal Liburutegia
Fermin Calbeton kaleko Haur Liburutegia
Konstituzio plazako Bulego Eraikina
Casares Kultur Etxea
Aiete Kultur Etxea
Ipuinen Dorrea
Altza Kultur Etxea
Tomasene Kultur Etxea
Larratxoko Liburutegia
Egia Kultur Etxea
Ernest Lluch I Kultur Etxea
Ernest Lluch II Kultur Etxea
Larrotxene Kultur Etxea
Intxaurrondo Kultur Etxea
Lugaritz Kultur Etxea
Antiguako merkatua
Loiola Kultur Etxea
Okendo Kultur Etxea
Igarako biltegiak*

Igarako biltegiak (Festak)
Mundaizko biltegia
Larratxoko biltegia
Zorroagako biltegia
Mateo Errotako biltegia
Martuteneko biltegia (Redur)
Intxaurrondo Berriko biltegia

San Telmo Museoa
Urgull mendiko Damen Bateria (liburutegia)
Urgull mendiko bolborategia (Damen Bateriatik hurbil)
Urgull mendiko Mota Gaztelua
Urgull mendiko Napoleonen bolborategia (kanoi biltegia)
Gobernadorearen Bateria (Natur Txokoa)

Victoria Eugenia Antzokia
Antzoki Zaharra

Kontratazioa bi lotetan zatitzen da, ondoren banakatzen den moduan. Enpresa lizitatzailleek lote baterako edo bietarako eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte.

1. LOTEA.- Laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako eta psikosoziologia aplikatuko espezialitateetako prebentzio zerbitzua.

2. LOTEA.- Osasunaren zaintzako espezialitateko prebentzio zerbitzua.

1. loteari dagokionez, enpresa kontratistak lote horren xede diren zerbitzuak egin beharko ditu (psikosoziologia aplikatuko zerbitzua izan ezik) gutxienez urtean 468 orduz (astean 9 ordu, 2 lanalditan banatuta: 5 ordu egun batean eta 4 ordu bigarrenetan, goizez edo DONOSTIA KULTURAK zehazten duen ordu banaketaren arabera). Eta psikosoziologia aplikatuko zerbitzuak gutxienez urtean 30 orduz egin beharko ditu.

Gainera, kontratua formalizatu ondoren ikusitako beharrak direla eta, DONOSTIA KULTURAK, egokitzat jotzen badu, psikosoziologia aplikatuko zerbitzuan aurreko paragrafoan adierazitako gutxieneko 30 orduak baino gehiago egiteko eskatu ahal izango dio kontratistari. Ordu horiek Agiri honen 7. klausularen arabera zehaztutako prezioan egin beharko ditu kontratistak.

Horrek ez du inongo konpromisorik ekarriko DONOSTIA KULTURARENTZAT, kontratistari psikosoziologia aplikatuko zerbitzu gehigarriak eskatzeari dagokionez. Dena den, DONOSTIA KULTURAK ezin izango dio enpresa kontratistari eskatu adierazitako gutxieneko 30 orduz bestelako 30 ordu baino gehiago egiteko.

B) GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

1. LOTEA.- Laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako eta psikosoziologia aplikatuko espezialitateetako prebentzio zerbitzua

Giza baliabideak.

- Enpresa esleipendunak kontratua gauzatzeari atxikiko dio **laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikari bat**, laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako eta psikosoziologia aplikatuko espezialitateetan, arkitekturako, arkitektura teknikoko edo eraikuntzaren ingeniartzako titulazioa eta espezialitate horietan gutxienez bost urteko esperientzia frogatua duena, Agiri honen zehaztapen eta eskakizunen artean sartzen diren funtzio eta zeregin guztiak betetzeko (ikus **I. eranskina**). Bere bulegoan eta DONOSTIA KULTURAREN lokaletan garatuko du bere jarduera. Kontratuari hasiera eman aurretik, erakunde kontratatzailearekin adostuko da nahitaez bertaratzeko asteko eguna eta ordutegia. Zerbitzuaren beharren arabera aldatu ahal izango dira. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkuretara eta DONOSTIA KULTURAK deitutako lan bilera guztietara joan beharko du.
- Esleipendunak, halaber, kontratua gauzatzeari atxiki beharko dio **laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikari bat**, ergonomiako eta psikosoziologiako espezialitatean, psikologiako titulazioa eta gatazka psikosozialetako gaietan gutxienez bost urteko esperientzia frogatua duena. Bere eginkizun nagusia kontratua gauzatzen den bitartean sor daitezkeen jatorri psikosozialeko gatazka eta arazoetan bitartekotza egitea izango da. Eginkizun horretan, arazo edo gatazkaren zergatikoak diagnostikatuko ditu, horiei konponbidea emateko sistema bat diseinatuko du, kanpoko bitartekotza jarduera egingo du...

DONOSTIA KULTURAK eskatuta, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkuretara eta deitutako lan bilera guztietara joan beharko du. Gainera, ikerketa eta aholkularitza konfidentzialeko batzordeetan parte hartu beharko du laneko jazarpeneko eta sexu jazarpeneko kasuetan.

- Gainera, esleipendunak kontratua gauzatzeari atxiki beharko dio osasun **koordinatzaile tekniko** bat, laneko arriskuen prebentzioko goi mailako prestakuntza, esperientzia frogatua eta bere enpresan egikaritze maila duena. Kontratua garatzen den bitartean gertatzen diren gorabeherak jakinarazteko, koordinatzeko eta konpontzeko arduraduna eta solaskidea izango da eta kontratuaren xede diren prestazioen jarduketak koordinatzeaz arduratuko da. DONOSTIA KULTURAK eta koordinatzaile teknikoak bilerak egingo dituzte, gutxienez lau hilean behin, egin beharreko jarduketak antolatzeko.

Kontratuari atxikita dauden eta jendearekin nolabaiteko harremana duten langile guztiek gaitasuna izan beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialeko edozeinetan komunikatzeko.

DONOSTIA KULTURAREN lokaletan (DONOSTIA KULTURAREN bulegoak eta jarduera espazioak) egin behar dituen jardueretarako, erakunde horrek espazio espezifikoak eta bereziki prestatuko dio. Zerbitzua egiteko behar diren informatika tresneria eta gainerako baliabide materialak esleipendunak jarri beharko ditu. Zerbitzuak kudeaketako informatika sistemarekin egiteko behar denean lan egiteko besterik ezin izango du sartu intranetean, eta ez du helbide elektronikoko korporatiborik izango.

Baliabide materialak.

Enpresa esleipendunak material egokiak emango dizkie langileei jarduera profesionala ezin hobeto gara dezaten.

Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera, jarduera nagusia garatzeko ohiko probak, neurketak, analisiak eta ebaluazioak egiteko behar diren aparatu, ekipamendu eta tresna guztiak kontratistak jarriko ditu, eta lanak amaitzean eraman egingo ditu.

Neurtzeko tresna, ekipamendu eta aparatuen zerrenda kontratatutako jarduerak garatzeko egokia izango da. Hori ezertan galarazi gabe, gutxienez honako baliabide material hauek beharko dira:

- Eremu elektromagnetikoen neurgailua; soinu eta bibrazio analizagailua; sonometroa; luxometroa; zarata dosimetroa; gas konbinatuaren neurgailua; tenperaturaren, hezetasunaren eta aire abiaduraren neurgailua.
- Kontratuari atxikitako laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikariek ordenagailu pertsonal eramangarri bat izango dute DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan lan egiteko, aurreko atalaren azken paragrafoan adierazitako terminoetan.

2. LOTEA.- Osasunaren zaintzako espezialitateko prebentzio zerbitzua

Giza baliabideak.

- Enpresa esleipendunak kontratua gauzatzeari atxikiko dio laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikari bat, osasunaren zaintzako espezialitatean (medikua), alor horretan gutxienez bost urteko esperientzia frogatua duena, Agiri honen zehaztapen eta eskakizunen artean sartzen diren funtzio eta zeregin guztiak betetzeko (ikus I. eranskina). Berak egingo ditu osasunaren zaintzako eta kontroleko funtzioak, azterketa medikoak eta abar. DONOSTIA KULTURAK eskatuta, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkuretara eta DONOSTIA KULTURAK deitutako lan bilera guztietara joan beharko du.
- Enpresa esleipendunak, halaber, kontratua gauzatzeari atxikiko dio enpresako OLT/EUD bat, alor horretan gutxienez bost urteko esperientzia frogatua duena.

DONOSTIA KULTURAKO langileen osasunaren zaintza burutzeko behar diren proba guztiak (ikus II. eranskina), hots, odol analisiak, audiometria probak eta abar, indarreko legeriak ezartzen duen gaitasun teknikoa, prestakuntza eta ahalmena duten osasun langileek egingo dituzte. Odol ateratzeak horretarako baimendutako lekuetan eta agintaritza eskudunak zehaztutako baldintzetan egingo dira.

Azterketa medikoak eta horien emaitzak konfidentzialtasun zorrotzarekin tratatuko dira.

- Gainera, enpresa esleipendunak kontratua gauzatzeari atxikiko dio osasun koordinatzaile tekniko bat, laneko arriskuen prebentzioko goi mailako

4. TXOSTENAK/DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEA

Kontratastak garatutako prebentzio jardueraren emaitzazko txostenak (eta, bereziki, arriskuen ebaluazioak, ekintza zuzentzaileak, larrialdietako planak, prebentzio plana eta abar) paper euskarrian entregatuko dira, bi aletan, DONOSTIA KULTURAREN Zerbitzu Nagusietan. Dagozkien informatika fitxategiak ere entregatuko dira. Fitxategi horiek manipulatzeko/editatzeko modukoak izan behar dute. Hortaz, PDF formatuan entregatzeaz gain, Autocad, Access, Word edo Excel moduko formatuetan entregatu beharko dira, gehienez ere kontratastak dagokion zentzora bisita egin eta hilabeteko epean.

Istripuen (arinak, larriak edo oso larriak) ikerketari buruzko jarduketan txostenak, edo, presaren ondorioz hala egin beharra eskatzen dutenak, 5 eguneko gehieneko epean entregatuko zaizkio DONOSTIA KULTURARI.

Enpresa esleipendunak azterketa medikoa egin eta 24 orduko gehieneko epean jakinaraziko dio DONOSTIA KULTURAKO Giza Baliabideen Sailari langileen gaitasunaren kalifikazioa.

Dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz entregatuko da. Dokumentuen itzulpena hitzartutako orduetatik kanpo egingo da. Ez da behar den bezala sinatuta aurkezten ez den txostenik onartuko.

Donostian, 2016ko uztailaren 18an

Jaime Otamendi Muñagorri
Zuzendari kudeatzailea



I. ERANSKINA:

1. LOTEA. PREBENTZIO ZERBITZUA: ESPEZIALITATEAK: LANEKO SEGURTASUNA, INDUSTRIA HIGIENEA ETA ERGONOMIA / PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUA
--

Zerbitzuak honako hauek hartuko ditu barnean:

- URTEKO PROGRAMA

Prebentzio arloko jarduketan URTEKO PLANA egitea. DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN (aurrerantzean DONOSTIA KULTURA) koordinatuta egingo da eta, lehen urtean (2016), kontratua formalizatu eta hilabeteko epean aurkeztuko da. Hurrengo urteetan, urteko lehen 30 egunen barruan aurkeztuko da.

Programa horretan jasoko da jarduketa bakoitza gauzatzeko aurreikusitako epea, baita jarduketak egingo dituzten langileak ere.

URTEKO PROGRAMAREN aldian behingo jarraipena egitea, aurreikusitako epeak betetzen direla egiaztatzeko.

- ORDEZKARITZA ORGANOAK

Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileretara joatea.

Ikerketa eta aholkularitza konfidentzialeko batzordeetan parte hartzea laneko jazarpeneko eta sexu jazarpeneko kasuetan.

- LANEKO IKUSKAPENAK

Laneko ikuskapenetara joatea.

- PREBENTZIO PLANA

Prebentzio Planaren jarraipena egitea eta hura ezartzen laguntzea.

Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzearen eraginkortasuna baloratzea, itundutako jardueri dagokienez.

- URTEKO MEMORIA

Garatutako jarduketan URTEKO MEMORIA egitea.

- **PREBENTZIO ZERBITZUA: ESPEZIALITATEA: LANEKO SEGURTASUNA**

▪ **LANEKO ARRISKUEN EBALUAZIOA**

Laneko arriskuen hasierako ebaluazioa edo ebaluazio orokorra egitea eta/edo horiek eguneratzea.

Arriskuak garrantziaren arabera lehenestea.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legeriaren arabeko azterketa espezifikoak.

- **EKINTZA ZUZENTZAILEEN PLANGINTZA**

Prebentzio jardueren ondorio diren ekintza zuzentzaileen plangintza.

Ekintza zuzentzaileen plangintzaren aldi behingo jarraipena egitea, aurreikusitako epeak betetzen direla egiaztatzeko.

- **LARRIALDI PLANAK**

Larrialdi planak, autobabeseakoak eta ebaluaziokoak egitea eta/edo eguneratzea.

Larrialdi planak, autobabeseakoak eta ebaluaziokoak ezartzea eta ezagutaraztea.

Esku hartzeko taldeak eta gainerako langileak prestatzea.

Ebakuazio simulakroak egitea.

- **JARRAIPENA ETA BALORAZIOA**

Ebaluazioaren ondorio diren prebentzio jardueren ezarpenaren jarraipena eta balorazioa egitea.

- **BARNEKO INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA**

Arriskuen eta prebentzio neurrien informazioa:

- Lanpostuaren berezko arriskuak.
- Instalazioen arriskuak.
- Hirugarrenen jarduerarekin lotutako arriskuak.

- **LANGILEEN PRESTAKUNTZA**

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko langileen prestakuntza teorikoa eta praktikoa. Segurtasun fitxak egitea eta/edo eguneratzea.

- **SEGURTASUN JARRAIBIDEAK, PROZEDURAK ETA ARAUAK**

Segurtasun jarraibideak, prozedurak eta arauak prestatzea eta/edo eguneratzea.

- **ISTRIPU ETA GAIXOTASUN PROFESIONALAK IKERTZEA**

Istripu/gorabehera bajadunak eta bajarik gabeak eta gaixotasun profesionalak ikertzea.

Laneko istripu baten ondoren laneko arriskuen ebaluazioa egitea, berrikustea eta/edo eguneratzea, lanpostuaren eta egindako jarduera edo zereginaren arabera.

Jarduera horren garapena arautuko duen prozedura prestatzea eta ezartzea.

Istripu tasaren azterketak.

- LAN BALDINTZEN ALDIAN BEHINGO KONTROLAK ETA BERRIKUSKETAK. IKUSKAPENAK

Lan baldintzen aldian behingo kontrolak egitea. Ikuskapenak.

- ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

DONOSTIA KULTURAREN jardueretara egokitzen den enpresa jarduerak koordinatzeko prozedura prestatzea eta/edo eguneratzea eta ezartzea.

- EROSKETEN KONTROLA ETA INGENIARITZA

Lan ekipamendu berriak, materialak eta abar erosteko prozedura ezartzea. Segurtasun eta osasun irizpideen arabera.

- NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUA (NBE)

Lanpostu bakoitzeko NBE-en inbentarioa egitea eta/edo berrikustea, eta haiek erosteko eta erabiltzeko prozeduran laguntza teknikoa eskaintzea. Babes ekipamendu kolektiboen azterketa.

- LAN EKIPAMENDUEN AUDITORETZA

Lan ekipamenduen auditoretza egitea, langileek lan ekipamenduak erabiltzeko gutxienezko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren eta berorren geroztiko aldaketen (edo indarrean dagoen araudiaren) arabera.

- **PREBENTZIO ZERBITZUA: ESPEZIALITATEA: INDUSTRIA HIGIENEA**

- HIGIENE ARRISKUEN EBALUAZIOA

Osasunerako higie arriskuaren ebaluazio kualitatiboa: agente kimiko/fisiko arriskutsuak identifikatzea, haien ebaluazio espezifikoak egiteko.

Agente kimikoen ebaluazio espezifikoak.

Agente fisikoen ebaluazio espezifikoak.

- INDUSTRIA HIGIENEAREN ARLOKO EKINTZA ZUZENTZAILEEN PROGRAMAZIOA

Prebentzio jardueren ondorio diren ekintza zuzentzaileen programazioa egitea eta horretarako aholku ematea.

Ekintza zuzentzaileen programazioaren aldian behingo jarraipena egitea, aurreikusitako epeak betetzen direla egiaztatzeko.

- **JARRAIPENA ETA BALORAZIOA**

Ebaluazioaren ondorio diren prebentzio jardueren ezarpenaren jarraipena eta balorazioa egitea.

- **ARRISKUEN INFORMAZIOA**

Produktu kimikoen ondoriozko arriskuen fitxak egitea.

- **LANGILEEN PRESTAKUNTZA**

Higiene arriskuen aurreko prestakuntza eta informazioa.

- **SEGURTASUN JARRAIBIDEAK, PROZEDURAK ETA ARAUAK**

Higiene arriskuak dituzten zeregin kritikoak egiteko prebentzio jarraibideak eta arauak prestatzea.

- **ISTRIPU ETA GAIXOTASUN PROFESIONALAK IKERTZEA**

Industria higieinarekin erlazionatutako istripu/gorabehera bajadunak eta bajarik gabeak eta gaixotasun profesionalak ikertzea.

- **ALDIAN BEHINGO KONTROLA**

Aldian behingo jarraipeneko higie ebaluazioak egitea.

- **PREBENTZIO ZERBITZUA: ESPEZIALITATEA: ERGONOMIA**

- **ARRISKU ERGONOMIKOEN EBALUAZIOA**

Arrisku ergonomikoen hasierako ebaluazio kualitatiboa: elementu arriskutsuak identifikatzea, haien ebaluazio espezifikoak egiteko.

Arrisku ergonomiko espezifikoaren ebaluazio ergonomikoa: karga fisikoa, ingurumen baldintzak, datuak bistartzeko pantailak, eta abar.

- **ERGONOMIAREN ARLOKO EKINTZA ZUZENTZAILEEN PROGRAMAZIOA**

Prebentzio jardueren ondorio diren ekintza zuzentzaileen programazioa egitea eta horretarako aholku ematea.

Ekintza zuzentzaileen programazioaren aldian behingo jarraipena egitea, aurreikusitako epeak betetzen direla egiaztatzeko.

- JARRAIPENA ETA BALORAZIOA
Ebaluazioaren ondorio diren prebentzio jardueren ezarpenaren jarraipena eta balorazioa egitea.
- BARNEKO INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA
Ergonomiaren arloko informazioa.
- LANGILEEN PRESTAKUNTZA
Ergonomiaren arloko prestakuntza.
- ISTRIPU ETA GAIXOTASUN PROFESIONALAK IKERTZEA
Ergonomiarekin eta psikosoziologia aplikatuarekin erlacionatutako istripu/gorabehera bajadunak eta bajarik gabeak eta gaixotasun profesionalak ikertzea.

- **PREBENTZIO ZERBITZUA: ESPEZIALITATEA: PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUA (PSIKOLOGOA)**

- ARRISKU PSIKOSIZIALEN EBALUAZIOA
Arrisku psikosizialen ebaluazioa berrikustea.
- PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUAREN ARLOKO EKINTZA ZUZENTZAILEEN PROGRAMAZIOA
Prebentzio jardueren ondorio diren ekintza zuzentzaileen programazioa egitea eta horretarako aholku ematea.
Ekintza zuzentzaileen programazioaren aldi behingo jarraipena egitea, aurreikusitako epeak betetzen direla egiaztatzeko.
- JARRAIPENA ETA BALORAZIOA
Ebaluazioaren ondorio diren prebentzio jardueren ezarpenaren jarraipena eta balorazioa egitea.
- BARNEKO INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA
Psikosoziologia aplikatuaren arloko informazioa.
- LANGILEEN PRESTAKUNTZA
Arrisku psikosizialei buruzko prestakuntza eta urteko prestakuntza plana egitea.
Enpresak jatorri psikosizialeko gatazketan bitartekotza egiteko izendatutako pertsonentzako prestakuntza espezifiko ematea.

Langile guztiei jatorri psikosozialeko gatazkei buruzko prestakuntza espezifikoa ematea.

- **ISTRIPU ETA GAIXOTASUN PROFESIONALAK IKERTZEA**

Psikosoziologia aplikatuarekin erlazionatutako istripu/gorabehera bajadunak eta bajarik gabeak eta gaixotasun profesionalak ikertzea.

- **JATORRI PSIKOSOZIALEKO GATAZKAK ETA PROBLEMATIKAK**

Jatorri psikosozialeko gatazka eta problematikan esku hartzea: haien zergatikoak diagnostikatzea, kanpoko bitartekotza jarduera eskaintzea, eta abar.

Gatazkak ebazteko sistema bat diseinatzea.

DONOSTIA KULTURAREKIN adosten denean, bakarkako psikoterapiak egitea.

II. ERANSKINA:

2. LOTEA. PREBENTZIO ZERBITZUA: OSASUNAREN ZAINITZA

Zerbitzuak honako hauek hartuko ditu barnean:

- OSASUNA ZAINITZEKO PROIEKTUA

- Kontratua formalizatu eta hiru hilabeteko epean Osasuna Zaintzeko Proiektua egitea. Bertan jasoaraziko dira lanpostu bakoitzari aplikatu zaizkion Osasun Ministerioak eta autonomia erkidegoek ezarritako protokolo espezifikoak.
- Arrisku ebaluazioak eta informazio gehigarria analizatzea eta aztertzea, eta lanpostuen medikuntza eta lan ebaluazio espezifikoak egitea, osasun langile eskudunek lantokiak bisitatu ondoren.
- Langile haurdunak, adingabeak eta abar eraginpean har ditzaketen arriskuak aztertzea.
- Epidemiologia eta morbilitate azterketak.
- Urteko programa.

- URTEKO PROGRAMA

- Osasunaren zaintzako jardueren URTEKO PLANA egitea. DONOSTIA KULTURAREKIN koordinatuta egingo da eta, lehen urtean (2.016), kontratua formalizatu eta hilabeteko epean aurkeztuko da. Hurrengo urteetan, urteko lehen 30 egunen barruan aurkeztuko da.
- Programa horretan jasoko da jarduketa bakoitza gauzatzeko aurreikusitako epea, baita jarduketak egingo dituzten langileak ere.
- URTEKO PROGRAMAREN aldian behingo jarraipena egitea, aurreikusitako epeak betetzen direla egiaztatzeko.

- PRESTAKUNTZA, INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA

- Langileek laneko medikuntzaren / lehen laguntzen arloan dituzten prestakuntza eta informazio beharren plana.
- Laneko medikuntzari buruzko langileen prestakuntza/informazioa.
- Horren beharra duten langileei gomendatutako neurrien txostena.

- **ARRISKU EBALUAZIOA**

- Arrisku ebaluazioak eta informazio gehigarria analizatzea eta aztertzea, eta lanpostuen medikuntza eta lan ebaluazio espezifikoak egitea, osasun langile eskudunek lantokiak bisitatu ondoren.
- Nahitaezko osasun azterketa duten lanpostuak zehaztea. Protokoloa.

- **LANGILE HAURDUNAK, ADINGABEAK, ETA ABAR**

- Haurdun dauden edo duela gutxi erdi diren langileak, adingabeak eta arrisku jakin batzuekiko bereziki sentiberak diren langileak eraginpean har ditzaketen arriskuak aztertzea eta baloratzea, eta prebentzio neurri egokiak proposatzea.

- **EPIDEMIOLOGIA ETA MORBILITATE AZTERKETAK**

- Epidemiologia eta morbilidade azterketak egitea, sexuaren arabera bereziak.

- **AZTERKETA MEDIKOAK**

- Azterketa medikoek laneko txosten medikoa izango dute. Azterketa motak:

- **Hasierakoak:** langile kontratatu berriak lanean hasten direnean. Azterketa horiek abisua eman eta 48 orduko gehieneko epean egingo dira. Lanpostu bakoitzari aplikatu beharreko protokolo mediko espezifikoetan oinarrituta egingo dira.
- **Aldian behingoak:** urtean behin eskainiko zaizkie langile guztiei. Ikus "Aldian behingo azterketa medikoaren edukia" atala.

Borondatezkoak izango dira, honako kasu hauetan izan ezik:

- Azterketak egitea ezinbestekoa denean lan baldintzek langileen osasunaren gainean dituzten ondorioak ebaluatzeko, edo
- Langilearen osasun egoera berarentzat, gainerako langileentzat edo enpresarekin erlazionatutako beste pertsona batzuentzat arriskutsua izan daitekeen egiaztatze, edo
- Arrisku espezifikoetatik babestearekin eta jarduera bereziki arriskutsuekin erlazionatutako lege xedapenen batean horrela ezarrita dagoenean. Esate baterako: zarata, amianto...

Urteko lehen seihilekoaren barruan egin beharko dira.

- Lanpostuetako **zereginen** eta/edo arriskuen **funtsezko aldaketaren ondorioz**. Lanpostu bakoitzari aplikatu beharreko protokolo mediko espezifikoetan oinarrituta egingo dira.

- Osasun arrazoiaren ondorioz luzaroan lanetik kanpo egon ondoren **berriro lanean hastean**, izan litzakeen jatorri profesionalak aurkitzeko eta langileak babesteko ekintza egokia gomendatzeko. Lanpostu bakoitzari aplikatu beharreko protokolo mediko espezifikoetan oinarrituta egingo dira (ikus III. eranskina).

- **ALDIAN BEHINGO AZTERKETA MEDIKOAREN EDUKIA**

- ANAMNESIA

Familiako aurrekariak eta aurrekari pertsonalak: txertaketak, seroterapia, aurrekari alergikoak, sexu transmisio gaixotasunak, izandako gaixotasunak eta datak, ebakuntza kirurgikoak eta laneko aurrekari medikoak.

- OHITURAK

Tabakismoa, etilismoa, ariketa fisikoa, medikazioa, elikadura.

- IKUSKAPEN OROKORRA

Biotipoa, garaiera, pisua, gorputz masaren indizea.

- APARATUZ APARATUKO MIAKETA

Organismoaren sistema guztiak: burua, lepoa, sistema kardiopulmonarra, abdomena, sistema genitourinarioa, sistema muskuloesketikoa, larruazala eta fanerak, nerbio sistema.

- IKUSMEN ZOLITASUNAREN KONTROLA

- AUDIOMETRIA

Otoskopia.

- ESPIROMETRIA BASALA

- ELEKTROKARDIOGRAMA BASALA

- ODOL ANALITIKA

Hemograma osoa, globuluen jalkiera abiadura, biokimika: glukosa, kreatinina, azido urikoa, kolesterol totala, DL-kolesterola, triglizeridoak, GOT, GPT, GGT, fosfatasa alkalinoa, bilirrubina totala, burdina.

- PROSTATAKO ANTIGENO ESPEZIFIKOAREN (PSA) DETERMINAZIOA

45 urtetik gorako gizonezkoetan.

- GERNU ANALISIA

Gernu jalkina eta anormalak.

- **LANPOSTU BAKOITZARI APLIKATU BEHARREKO PROTOKOLO MEDIKO ESPEZIFIKOETAN OINARRITUTAKO AZTERKETA MEDIKOA.**

- Orientazio moduan eta loteslea izan gabe, hona hemen azken urtean aplikatutako protokolo medikoen laburpena.

KARGAK MANIPULATZEA	DATUAK BISTARATZEKO PANTAILAK	JARRERA BEHARTUAK	HAUTSA	PRESIOAK ERAGINDAKO NEUROPATIAK	ZARATA	ALTUERAN LAN EGITEA	ARNAS NARRITAGARRIA	KIMIKOAK	BIOLOGIKOAK	GIDARIA
109	187	124	48	114	27	39	1	4	1	8

- Gainera, toraxeko 9 erradiografia egin dira dagoeneko desagerrarazi diren arriskuak zituzten lanpostuetan (amiantoaren eraginpean egon izana).

- **GAITASUNAREN KALIFIKAZIOA**

- Lanpostuarekin lotutako zereginak egiteko langileen gaitasunaren kalifikazioa.

- **TXOSTEN MEDIKOAK**

- Txosten medikoak egitea eta erregistratzea (gutziz konfidentziala). Azterketa medikoan egindako proba eta praktika mediko guztiak aintzat hartuta eginak. Langile bakoitzari pertsonalki eta konfidentzialki zuzendutako informazio dokumentua da.

- **URTEKO MEMORIA**

- Prebentzio zerbitzuaren osasun jardueren URTEKO MEMORIA egitea.

- **ORDEZKARITZA ORGANOAK**

- Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileretara joatea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean aurreikusitakoaren arabera.

- **LANEKO IKUSKAPENAK**

- Laneko ikuskapenetara joatea.